



OLABERRIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA  
(GIPUZKOA)



**2011ko EKAINAREN 11an UDALA  
ERATZEKO ETA ALKATEA  
AUKERATZEKO EGINDAKO OSOKO  
BILKURAREN AKTA.**

Olaberrian, 2011ko ekainaren 11an, eguerdiko 13:00ak izanik Udaletxeko Pleno Aretoan bildu dira irteteko dagoen Alkatea, Txomin Mendoza Perez, zinegotzi hautetsiak Jokin Garmendia Asurabarrena, Jose Manuel Garrido Fernandez, Amaia Cuellar González, Jose Antonio Barandiaran Estala, Jose Bernardo Aldasoro Insausti, Iñigo Sarasola Aranzasti eta María Gema Echaniz Badiola.

Bertan dago eta fede ematen du Idoia Arebalo Benito Idazkari Kontuhartzaileak.

Osoko Bilkura legez osatzeko beharrezkoa den zinegotzi kopurua bertaratu dela egiaztatu ondoren, gai zerrendako lehenengo puntua aztertzeari ekiten dio Udalbatzak.

**1.- UDALA ERATZEA**

Hauteskunde Erregimen Orokorra arautzen duen ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 195. artikulua dionari jarraituz, eta Udala osatzeko helburuarekin, Adineko Mahaia osatzen

**ACTA DEL PLENO CELEBRADO EL 11  
DE JUNIO DE 2011 PARA LA  
CONSTITUCIÓN DE LA CORPORACIÓN  
Y ELECCIÓN DEL ALCALDE.**

En Olaberria, a 11 de junio de 2011, siendo las 13:00 horas se han reunido en el Salón de Plenos del Ayuntamiento el Alcalde saliente, Txomin Mendoza Pérez, los concejales electos Jokin Garmendia Asurabarrena, Jose Manuel Garrido Fernandez, Amaia Cuellar González, Jose Antonio Barandiaran Estala, Jose Bernardo Aldasoro Insausti, Iñigo Sarasola Aranzasti y María Gema Echaniz Badiola.

Asiste y da fe del acto la Secretaria-Interventora Idoia Arebalo Benito.

Comprobado que asiste el número suficiente de concejales para la válida constitución de la Sesión Plenaria, la Corporación pasa a estudiar el primer asunto del orden del día.

**1.- CONSTITUCIÓN DE LA  
CORPORACIÓN**

Siguiendo lo estipulado en el art. 195 de la Ley Orgánica 5/1985, de 19 de junio, de Régimen Electoral General, y de cara a la constitución de la Corporación, se procede a constituir la Mesa de Edad.



OLABERRIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA  
(GIPUZKOA)



da.

Adineko Mahaia hautatu zaharrenak eta gazteenak osatzen dute, Udaleko Idazkariarekin batera.

La Mesa de Edad la componen los electos de mayor y menor edad, junto con la Secretaria de la Corporación.

Hori horrela izanik, Adineko Mahaiaren osaketa ondorengoa da:

Siendo esto así, la composición de la Mesa de Edad es la siguiente:

*Zinegotzi zaharrena:* Gema Etxaniz Badiola.

*Concejal de mayor edad:* Gema Etxaniz Badiola.

*Zinegotzi gazteena:* Amaia Cuellar Gonzalez.

*Concejal de menor edad:* Amaia Cuellar González.

*Idazkaria:* Idoia Arebalo Benito.

*Secretaria:* Idoia Arebalo Benito.

Adineko Mahaia zinegotzi-egiaztagutunak aztertzen ditu, baita Eskualdeko Hauteskunde Juntak Udaletxera bidalitako ziurtagiria ere, zinegotzi-egiaztagutunak eta ziurtagiria bat datozela baieztatzeko.

La Mesa de Edad estudia las credenciales de los concejales y el certificado enviado desde la Junta Electoral de Zona al Ayuntamiento, para comprobar que coinciden las credenciales con el certificado.

Hau baieztatu ondoren, zinegotziek Konstituzioa beteko dutela zin egin edo hitza eman behar dute, modu horretan karguaren jabetza hartu ahal izateko.

Comprobada la coincidencia, los concejales deben de jurar o prometer que acatarán la Constitución, para poder tomar posesión de su cargo.

Horretarako, Idazkariak honako galdera hau egiten die zinegotzi bakoitzari:

Para ello, la Secretaria formula a cada concejal la siguiente pregunta:

*“zure kontzientziaz eta ohorez, Olaberriko Udalerriko zinegotzi karguaren betebeharrak zuzen betetzea zin egiten edo promes egiten al duzu, erregeari*

*“¿Juro o prometo por mi conciencia y honor, cumplir fielmente las obligaciones del cargo de concejal del Ayuntamiento de Olaberria, con lealtad al rey, y guardar y*



OLABERRIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA  
(GIPUZKOA)



*leialtasuna izanik eta 1.978ko konstituzioa gorde eta gordearaziko duzularik, estatuaren oinarrizko arau bezala?"*

Zinegotzi bakoitzari galdera egin ondoren, guztiek adierazten dute betetzea zin edo promes egiten dutela, Jokin Garmendia Asurabarrena, Iñigo Sarasola Aranzasti eta Jose Bernardo Aldasoro Insausti hautetsiek legearen aginduz behartuta zin edota promes egiten dutela adierazten dutelarik.

Legezko agindu hori zinegotzi guztiek bete ondoren, zinegotzien gehiengo absolutua Osoko Bilkuran dagoenez, Udala eratu dela adierazten du Adineko Mahaiak, zinegotzien zerrenda ondoren zehazten dena izanik:

- **Jokin Garmendia Asurabarrena** (O.E.O. Olaberriarekin eta Olaberritarrak)
- **Jose Manuel Garrido Fernández** (O.E.O.)
- **Amaia Cuellar González** (O.E.O.)
- **Jose Antonio Barandiaran Estala** (O.E.O.)
- **Jose Bernardo Aldasoro Insausti** (O.H.E. Olaberriko Herri Elkarte)
- **Iñigo Sarasola Aranzasti** (BILDU- E.A. ALTERNATIBA)
- **Gema Etxaniz Badiola** (BILDU-E.A. ALTERNATIBA)

Jarraian, Idazkariak ondoren zehazten diren agiriak aurkezten dizkio Udalbatzari zinegotziek azter ditzaten, eta dokumentuak eranskin moduan gehitzen zaizkio akta honi:

*hacer guardar la constitución como norma fundamental del estado ?».*

Formulada la pregunta a cada concejal, todos juran o prometen acatar, con la salvedad de que los concejales electos Jokin Garmendia Asurabarrena, Iñigo Sarasola Aranzasti y Jose Bernardo Aldasoro Insausti, juran o prometen acatar por imperativo legal.

Cumplida esta obligación por todos los concejales, y estando presente la mayoría absoluta de los miembros, la Mesa de Edad da por constituida la Corporación, siendo la lista de concejales la siguiente:

- **Jokin Garmendia Asurabarrena** (O.E.O. Olaberriarekin eta Olaberritarrak)
- **Jose Manuel Garrido Fernández** (O.E.O.)
- **Amaia Cuellar González** (O.E.O.)
- **Jose Antonio Barandiaran Estala** (O.E.O.)
- **Jose Bernardo Aldasoro Insausti** (O.H.E. Olaberriko Herri Elkarte)
- **Iñigo Sarasola Aranzasti** ( BILDU- E.A. ALTERNATIBA)
- **Gema Etxaniz Badiola** (BILDU- E.A. ALTERNATIBA)

Acto seguido, la Secretaria presenta al Pleno los siguientes documentos para que los Concejales los estudien, documentos que se unen a este acta como anexo:



OLABERRIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA  
(GIPUZKOA)



1. Udalak dirutan dituen kantitateen egiaztagiriak.
2. Udalak dituen baloreen egiaztagiriak.
3. Udal-ondarearen inbentarioa.

Udalkideak jakinaren ganean gelditzen dira.

## 2.- ALKATEA AUKERATZEA.

Ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 196. artikulua jarraituz Idazkariak Alkatea aukeratzeko baldintzak gogorarazi ditu:

- Zerrenda buru diren zinegotzi guztiak izango dira hautagai.
- Hautagaietakoren batek lehen bozketan zinegotzi guztien (bertaratu gabeak barne) gehiengo osoa lortzen badu, alkate izendatuko da.
- Gehiengo hori inork lortzen ez badu, udal-hauteskundeetan gehien bozkatutako zerrendako buru den zinegotzia izango da Alkate.
- Berdinketa ematen bada, zozketa bidez erabakiko da.

Horrela bada, Jokin Garmendia Asurabarrena (O.E.O. taldekoa), Jose Bernardo Aldasoro Insausti (O.H.E. taldekoa) eta Iñigo Sarasola Aranzasti

1. Justificantes de las existencias en metálico que posee el Ayuntamiento.
2. Justificantes de los valores que posee el Ayuntamiento.
3. Inventario del patrimonio del Ayuntamiento.

Los corporativos quedan al corriente.

## 2.- ELECCIÓN DEL ALCALDE

Según lo establecido en el art. 196 de la Ley Orgánica 5/1985, de 19 de junio, la Secretaria recuerda las condiciones para elegir al Alcalde:

- Pueden ser candidatos todos los concejales que encabecen sus correspondientes listas.
- Si alguno de ellos obtiene la mayoría absoluta de los votos de los concejales (incluidos los no presentes) es proclamado electo.
- Si ninguno de ellos obtiene dicha mayoría, es proclamado Alcalde el concejal que encabece la lista que haya obtenido mayor número de votos.
- En caso de empate se resolverá por sorteo.

De esta manera, son cabezas de lista los concejales Jokin Garmendia Asurabarrena (grupo O.E.O.), Jose Bernardo Aldasoro Insausti (grupo O.H.E.) y Iñigo Sarasola



OLABERRIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA  
(GIPUZKOA)



zinegotzia (BILDU- E.A.-ALTERNATIBA taldekoa) zerrenda buru dira.

Zinegotziak aho-batez erabakitzen dute bozketa isilpekoa ez izatea, baizik eta izen-bidezkoa izatea.

Bozketa amaitu ondoren, emaitza ondorengoa da:

- Jokin Garmendia Asurabarrena: lau (4) boto.
- Jose Bernardo Aldasoro Insausti: boto bat (1).
- Iñigo Sarasola Aranzasti: bi (2) boto.

1

Bozketak erakusten duenez Jokin Garmendia Asurabarrena jaunak kideen legezko gehiengo absolutu suposatzen duen boto kopurua lortu du, eta beraz, Alkate moduan hautatua gelditzen da.

Ondoren, Jokin Garmendia Asurabarrena jaunak onartu egin du Alkate izatea. Horrela, bada, Udalbatza aurrean duela, agindu ere agindu du kargua beteko duela, horrek berarekin dakartzan ahalmen, eskubide eta betebeharrak guztiekin. Horrenbestez, Jokin Garmendia Asurabarrena jaunak Alkate karguaren jabetza hartu du.

Aranzasti (grupo BILDU- E.A.-ALTERNATIBA).

Los concejales acuerdan por unanimidad que la votación no sea secreta, sino nominal.

Finalizada la votación, el resultado es el siguiente:

- Jokin Garmendia Asurabarrena: votos: cuatro (4).
- Jose Bernardo Aldasoro Insausti: votos: uno (1).
- Iñigo Sarasola Aranzasti: votos: dos (2)

Según refleja la votación, Jokin Garmendia Asurabarrena ha obtenido el número de votos correspondientes a la mayoría absoluta del número legal de miembros de la corporación, y por lo tanto, queda proclamado Alcalde.

Acto seguido, Jokin Garmendia Asurabarrena acepta el cargo de Alcalde. Así, y teniendo delante a la Corporación, promete que cumplirá con su cargo, con todas las potestades, derechos y obligaciones que ello conlleva. Por lo tanto, el Sr. Jokin Garmendia Asurabarrena toma posesión de dicho cargo.



OLABERRIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA  
(GIPUZKOA)



Jarraian, Alkateak hitza hartzen du laguntza eman dioten guztiei eskerrak emanez, herriarentzat guztion laguntzarekin lanean jarraitzea helburutzat duela adieraziz.

Ondoren, Iñigo Sarasola zinegotziak hitza hartzen du ondoren transkribatzen den idatzi honi irakurketa emanez:

Acto seguido el Alcalde toma la palabra manifestando que agradece a todos el apoyo prestado y que espera seguir trabajando con la ayuda y colaboración de todos en favor del pueblo.

Tras la intervención del Alcalde, el concejal Iñigo Sarasola toma la palabra y da lectura al siguiente escrito transcrito de forma íntegra:



OLABERRIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA  
(GIPUZKOA)



### Ekainaren 11rako interbentzioa

Zorionak guztiol, zuen ahaleginari esker posible egin duzuelako Bildu koalizioak gaur hemen indarrez agertzea.

Euskal Herrian aro berri batean sarturik gaude, aldaketaren garaian. Ilusio eta itxaropenez kargaturik dago giroa eta zuengan, herritarrongan, indar berezi bat nabari daiteke, maiatzaren 22an Bildu koalizioa emaltza ikusgarriak lortzera eraman duena eta gaurkoan politika egiteko beste eredu bat martxan jartzera ekarri gaituena.

Pozez gainezka eta ardura osoz hartzen dugu zuen mandatua eta prest gaude oposizioan aritzeak suposatzen duen ardura handiari behar bezala erantzuteko. Zuek, herritarrek, aldaketaren giltza Bildu koalizioaren esku utzi duzue eta gaurtik aurrera zeregin honi helduko diogu, aldaketa politiko, soziala eta instituzionala hitzetatik ekintzetara eramateko.

Lehentasunezko erronka, hemen eta Euskal Herria osoan, egoera demokratikoa lortzea izango da eta horri begira lan egingo dugu udal honetan ere, guztion eskubide zibil eta politikoak onartuak izan daitezten, Horregatik bortxa adierazpen oro behin betikoz eta baldintzarik gabe desagertu dadin eskatzen dugu, baita mehatxuak, presioak, jazarpenak, atxiloketak eta torturak ere.

Zentzu honetan, Madrilgo gobernuak ezker abertzalearen ilegalizazioarekin amaitu behar du eta Sortu legalizatu, gizarte sektore hau konponbiderako nahiz herri honen etorkizunerako beharrezkoa delako. Era berean, presoen egoerari behin betiko irtenbidea eskaini behar zaio eta biktimei oro har.

Honek izan behar luke guztion arteko enkontrurako lehen ardatza, guztion konpromisoa eskatzen duena eta guri dagokigunez erabakitasunez sustatuko duguna Bildu koalizioaren eskutik, aurrean dugun aukera historikoa bururaino eramateko xedez.

Honekin batera, udala eraldatzea izango da gure erronka. Nola? Bildu koalizioa osatzen dugunon proiektua, abertzalea, ezkertiarra eta soberanista, herritarron esku jarritz eta beste herri bat eraikitzea posible dela erakutsiz.

Bildu koalizioaren proiektua herritar guztien ongizatea ziurtatzeari begira garatuko dugu eta, era berean, egungo krisi ekonomikoaren ondorioz, kaltetuenen eta behar gehien dituztenen mesedetan arituko gara.

Guztiantzat egingo dugu lan eta guztiokin, parte hartze demokratiko eta zabala bultzatu nahi dugulako datozen urteetan, elkarrekin eztabaidatuz, guztion parte hartzeaz erabakiz eta horretarako bitartekoak jarritz.



OLABERRIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA  
(GIPUZKOA)



Herrian txertatutako udala nahi dugu eta herritar aktiboak nahi ditugu, erabakitzaileak, eta horren aldeko apustu irmoa egingo dugu.

Beraz, herritarrok hautestontzietan adierazi duzuen aldaketa politiko eta sozialaren aldeko borondateari jarraikiz, beste urrats bat egitea dagokigu orain: bide hori elkarrekin burutzea, gazteekin, hirugarren adinekoekin, kultur eta kirol elkarteekin, herrigintzan eta auzolanean aritzeko prest zaudeten guztiekin. Guztiontzat zabalik izango ditugu gure ate guztiak eta horrela lan egiteko konpromisoa hartzen dugu, zuekin, herritarrekin elkarlanean.

Bukatzeko, gaur gure artean nagusi den ilusio eta itxaropenaren gainean egin dugu orain arteko bidai eder hau, baina gaurko egunean hasten dugun ibilbide honetan, konpromisoaren eta parte hartze kolektiboaren osagaiak ezinbestekoak izango zaizkigu emaltzak benetan emankorrak izan daitezen. Hori da eskatzen dizuedana.

Besterik gabe, mila esker eta zorionak guztioi.






OLABERRIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA  
(GIPUZKOA)



Eta aztertzeko beste gairik egon gabe, Alkate jaunak bukatutzat ematen du bilkura arratsaldeko ordu bata eta laurden direnean, eta nik, Udalbatzako Idazkariak, adierazitako guztiaren Akta egiten dut.

Y sin más asuntos por tratar, el Sr. Alcalde da por terminada la sesión cuando son las 13: 15 minutos de la tarde, y yo, Secretaria de la Corporación, expido el Acta de todo lo manifestado.

ALKATEA / EL ALCALDE



IDAZKARIA / LA SECRETARIA

